

## Txostena

## Informe

**Hauteskunde-kontabilitateei buruzko  
Irizpena  
(Eusko  
Legebiltzarrerako  
hauteskundeak, 2024ko  
apirilaren 21a)**

**Dictamen sobre  
Contabilidades Electorales  
(Elecciones al Parlamento  
Vasco 21 de abril de 2024)**







## AURKIBIDEA / ÍNDICE

LABURTZAPENAK .....	5
I. SARRERA .....	7
II. ONDORIOAK .....	10
III. DIRULAGUNTZA-PROPOSAMENA.....	11
IV. GOMENDIOAK.....	12
V. GEHIENEKO DIRULAGUNTZA, DIRULAGUNTZA-GASTUEN ETA -AURRERAKINEN MUGA .....	13
VI. HAUTESKUNDEETAKO KONTUAK .....	18
VI.1 Euzko Alderdi Jeltzalea (EAJ-PNV) .....	19
VI.2 Euskal Herria Bildu (EH Bildu) .....	20
VI.3 Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra(PSOE) .....	21
VI.5 Alderdi Popularra (PP) .....	22
VI.6 VOX .....	23
VI.7 SUMAR (SMR) .....	24





## AURKIBIDEA / ÍNDICE

ABREVIATURAS.....	5
I. INTRODUCCIÓN.....	7
II. CONCLUSIONES.....	10
III. PROPUESTA DE SUBVENCION .....	11
IV. RECOMENDACIONES.....	12
V. SUBVENCIÓN MÁXIMA, LÍMITE DE GASTOS Y ADELANTOS DE SUBVENCIONES .....	13
VI. CUENTAS ELECTORALES .....	18
VI.1 Euzko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco (EAJ-PNV).....	19
VI.2 Euskal Herria Bildu (EH Bildu) .....	20
VI.3 Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra (PSOE).....	21
VI.5 Partido Popular (PP) .....	22
VI.6 VOX.....	23
VI.7 SUMAR (SMR) .....	24

Vitoria-Gasteiz, 2024ko irailaren 19a

Vitoria-Gasteiz, a 19 de septiembre de 2024





## LABURTZAPENAK

- APEKKP Alderdi Politikoei Egokitutako Kontabilitate Plana eta martxoaren 30eko 3/2015 Lege Organikoari, Kontuen Epaitegiaren Osoko Bilkurak 2018ko abenduaren 20an onartutakoa.
- EAE Euskal Autonomia Erkidegoa.
- EAEHB Euskal Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordea.
- ELHL 5/1990 Legea, ekainaren 15ekoa, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzkoa.
- HKEE Herri Kontuen Euskal Epaitegia.





Baliozkoze Kod.: 91\_KWLCSAWM72TZDQMA3X5IW6P  
Egizkia: https://cpikree.eゴitzalektronikoa.eus/  
estpublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 6. orriadea, guztira 45





## I. SARRERA

Ekainaren 15eko 5/1990 Legearen 149.3 artikuluaren arabera, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzkoa, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak hauteskundeen kontabilitateari eta horietan jasotako sarrera eta gastuen justifikazioari buruzko irizpen arrazoitua eman behar du, 2024ko apirilaren 21ean egindako Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei dagokienez.

HKEEk, indarreko araudia betez, jarlekua eskuratu zuten edota hauteskundeetako dirulaguntzaren aurrerakina eskatu zuten alderdi politikoek aurkeztutako agiriak aztertu ditu.

Jarlekuren bat eskuratu duten alderdi politikoetan aztertu beharreko alderdiak honako hauek izan dira:

1. Hauteskundeetako sarrera eta gastuen kontabilitatea aurkezteko moduaz zehaztutako baldintzak bete izatea (ELHLaren 140. artikulua).
2. Irekitako edo gaitutako banku kontuak, EAEHBri jakinarazitakoak, hautagaitzek diru-funtsak biltzeko eta hauteskunde-gastuak ordaintzeko erabili dituztela egiaztatzea, ezarritako berezitasunekin (ELHLaren 141 eta 142.1 eta 2 artikuluak).
3. Aurrez egindako hauteskunde-gastuak ordaintzeko irekitako kontuen saldoen erabilera, bozketa ostean 90 eguneko epean egin dela (ELHLaren 142.3 artikulua).
4. Norbanakoek egiten dituzten ekarpenetan izena, helbidea eta nortasun agiri nazionalaren edo pasaportearen zenbakien ebidentzia dirua ezartzeko egintzan (ELHLaren 143.1 artikulua) eta inkatutako 10.000 euroren banakako muga gehiengoa errespetatu dela egiaztatzea (ELHLaren 145.4 artikulua).
5. Alderdi politikoek hauteskunde-prozesua ordaintzeko emandako diru-baliabideen jatorria (ELHLaren 143.3 artikulua).
6. Hauteskundeetako kontuetara honako erakunde hauetatik funtsak ekartzeko debekua betetzea: zeinahi administrazio edo erakunde publikotatik; erakunde autonomo edo estatuaz besteko entitateetatik; jabetza Estatuak, autonomia erkidegoek, probintziek edo udalek duten sektore publikoko enpresetatik; ekonomia mistoa duten enpresetatik; baita, indarreko kontratu bitartez, administrazio publikoren batentzat zerbitzu eman edo hornidura edo lanak egiten dituzten enpresetatik (ELHLaren 145.1. artikulua).
7. Atzerriko erakunde zein pertsonengandik edo Autonomia Erkidegoz kanpoko helbidea dutenengandik edo legezko ez diren jardueretatik funtsak ekartzeko debekua errespetatzea (ELHLaren 145.2 eta 3 artikuluak).
8. Eusko Legebiltzarrerako azken hauteskundeetan ordezkariak eskuratu zitzuten hautagaitzei Eusko Jaurlaritzak emandako hauteskundeetako dirulaguntzen aurrerakinan gehiengo muga gordetzea. Aurreratutako kopurua ezingo da izan hautagaitza horrek berak Eusko Legebiltzarrerako azken hauteskundeetan eskuratutako dirulaguntzaren % 30 baino handiagoa (ELHLaren 144.2 artikulua).

Bigarren aurrerakinaren zenbatekoa hautagaitzek eskuratutako hauteskunde-emaitzen arabera dagozkien dirulaguntzen zenbatekoaren % 90en pareko izango da,





hala dagokionean, aurreko ataleko aurrerakina murritzuta (ELHLaren 144.7 artikulua); kopuru hori ez da aurkeztutako hauteskundeen kontabilitateetan jaso, eman gabe baitzegoen kontuak aurkezteko epea amaitutakoan.

9. Hauteskunde gastuak egiaz kontratatu direla horretarako gaitutako aldia, hau da, hauteskundeak deitzen diren datatik hautagaiak izendatu arteko datara arte (ELHLaren 146 artikulua).
10. Legez finkatutako gastuetarako mugak betetzea (ELHLaren 147 artikulua), zeinak agintzen baitu inongo alderdi, federazio, koalizio edo hautesle-taldek ezingo duela ezarritako mugak gaindituko dituzten hauteskunde-gastuak egin. Lehen lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuaren 2024ko martxoaren 11ko Aginduak 1.862.417,46 eurotan finkatzen du zenbateko hori EAEko hiru hauteskunde-barrutietan aurkezten direnentzat.  
Gainera, ELHLaren 151.2 artikuluaren eta Ekonomia eta Ogasun Sailburuaren 2024ko martxoaren 4ko Aginduaren arabera, hautesleei propaganda, gutun-azal eta hauteskunde-txartelak edo hauteskunde-publizitateko bestelako zeinahi elementu modu zuzenean eta pertsonalean igortzeak eragindako hauteskunde gastuak hautesle bakoitzeko 0,28 eurorekin lagunduko dira, diruz dena delako hautagaitzak zerrenda aurkezu eta jarlekua eskuratu duen barruti bakoitzean. Diruz lagundutako kopuria ez da ELHLaren 147. artikuluak aurreikusten duen mugaren baitan barne hartua egongo, betiere, atal honek aipagai duen jarduera egiaz gauzatu dela justifikatzen bada.
11. Prentsa eta irratian, kartel eta publizitate hesietan publizitate kontzeptuan egindako gastuen mugak bete izatea (ELHLaren 75 eta 81. artikuluak).
12. Egindako gastuak justifikatzea, kontularitza, merkataritza eta zerga printzipio eta arauek agindutako gutxieneko baldintzak betetzen dituzten agirien bitartez.

Hauteskunde-prozesu honi ezargarria zaion legedia honako hau da:

- 5/1985 Lege Organikoa, ekainaren 19koa, Hauteskundeen Araubide Orokorrari buruzkoa.
- 5/1990 Legea, ekainaren 15ekoa, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzkoa.
- Lehendakariaren 7/2024 Dekretua, otsailaren 26koa, Eusko Legebiltzarra desegin eta hauteskundeak deitzen dituena.
- 2024ko martxoaren 4ko Agindua, Ekonomia eta Ogasun Sailburuarena, ELHLn jasotako kopuruak gaurkotzen dituena.
- Lehen lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuaren 2024ko martxoaren 11ko Agindua, 2024ko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan hauteskunde-gastuak mugatzeko ezarritako kopuruak zehazteari buruzkoa.





Herri Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Hona hemen 2024ko apirilaren 21ean egindako Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan jarlekua eskuratu duten alderdi politikoak:

ALDERDI POLITIKOA	SIGLAK
Euzko Alderdi Jeltzalea.....	EAJ-PNV
Euskal Herria Bildu .....	EH Bildu
Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra (PSOE) .....	PSE-EE (PSOE)
Alderdi Popularra.....	PP
VOX.....	VOX
SUMAR .....	SMR





## II. ONDORIOAK

1. Alderdi politikoen kontabilitatearen fiskalizazioa Kontuen Epaitegiari dagokio, eta, beraz, HKEEk ez du egiaztatu hauteskunde-prozesu honi dagokion hauteskunde-gasturik egon daitekeen aurkeztutako kontabilitateetan erregistratu gabe, ezta aurkeztutako kontabilitateetatik kanpo erregistratutako ordainketarik eta kobrantzarik dagoen ere.
2. SMRk 3.138,14 euro ordaindu ditu irekitako eta EAEHBri jakinarazitako hauteskunde-kontua ez den beste kontu batetik (ELHLaren 142.1 artikulua).
3. Alderdi politiko guztiak, SMRk izan ezik (ikus VI.a), hauteskunde-kontabilitatea ezarritako epearen barruan aurkeztu dute, HKEEk fiskalizatu dezan (ELHLaren 140. artikulua).
4. SMRk hornitzaleei ordaindu ahal izateko alderdi politikoak egindako 145.700 euroen ekarpenak erregistratu ditu, aurkeztutako kontabilitatea itxi ondoren, 2024ko maiatzaren 30ean; ekarpen horiek ez daude bertan jasota (ikus VI.6).

Aurreko paragrafoetan deskribatutakoaren ondorioak eta balizko ondorioak alde batera utzita, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan ordezkaritza lortu duten alderdi politikoek zuzentasunez bete dute hauteskunde-gastuen eta -finantzaketaren arloan indarrean dagoen legeria.





Herri Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

### III. DIRULAGUNTZA-PROPOSAMENA

Hauteskunde-gastuen dirulaguntza EAEko aurrekontuen kargura egiten da, ELHLaren 11. artikuluari jarraiki. Kopuruak 2024k martxoaren 4ko Aginduak gaurkotu ditu. Dirulaguntza ez da inola ere diruz lagungarri diren hauteskunde-gastuak baino handiagoa izango, eta horiek ere ezingo dute gastuen gehieneko muga gainditu (ikus V.2). Horren arabera, hauteskunde-kontabilitatea aurkeztu den datan dirulaguntzen hauteskunde aurreko aurrerakina soilik jaso dela aintzat hartuta, alderdi politiko bakoitzak jasotzea duen dirulaguntza honako hau da:

FORMACION POLÍTICA	DIRUZ LAGUNG. DIREN					Euroak
	GEHIENEKO DIRULAG. GUZTIRA	HAUTESKUNDE GASTUAK	DIRULAG. APLIKAGAR.	HAUTES.AURR. AURRERAKINA	ZOR SALDOA	
EAJ-PNV.....	1.908.981,48	2.029.515,91	1.908.981,48	435.879,63	1.473.101,85	
EH Bildu.....	1.883.844,06	1.528.017,14	1.528.017,14	309.802,76	1.218.214,38	
PSE-EE (PSOE) .....	1.175.141,96	1.596.466,67	1.175.141,96	277.410,06	897.731,90	
PP.....	704.127,17	1.000.126,22	704.127,17	208.757,23	495.369,94	
VOX.....	287.445,86	410.279,73	287.445,86	40.899,91	246.545,95	
SMR.....	204.182,37	330.925,55	204.182,37	46.483,26	157.699,10	
GUZTIRA	6.163.722,90	6.895.331,22	5.807.895,98	1.319.232,85	4.488.663,13	

Gehieneko dirulaguntzaren kalkulua V.1 atalean dago zehaztua, eta hautesleei egindako bidalketa zuzena eta pertsonala eta gainerako hauteskunde-gastuak barne hartzen ditu. Diruz lagungarri diren hauteskunde-gastuak txosten honen VI. atalean zehaztu dira eta jasotako aurrerakinak V.3 atalean.





#### IV. GOMENDIOAK

- ELHLaren 151.2 artikuluak dio: "gainera, hautesleei propaganda, gutun-azal eta esku-paperak edo hauteskunde-publizitateko bestelako zeinahi elementu zuzenean eta pertsonalki igortzeak eragindako hauteskunde-gastuak lagunduko dira diruz". Nolanahi dela ere, ELHLaren inongo artikulutan ez dira kontzeptu honen izenean egotzi behar diren gastuak zehazten.

Artikulu horren interpretazioa AEHBk 1998ko irailaren 11n egindako bilkuraren aztertu zuen eta hautesle bakotzeko dirulaguntza zer den eta gastu horiek nola justifikatu behar diren deskribatu zuen; ordea, ez zuen zein gastu barne har daitezkeen finkatu.

Halaber, komeniko litzateke ELHLk adierazitako kontzeptuetan kontuan hartu beharreko gainerako hauteskunde-gastuen izaera garatu eta zehaztea, eta, bereziki, gastu mugatuei dagozkienak: kanpoko publizitatea eta prentsa eta irratikoa. Erregulazio horretan, gainera, informazioaren teknologia berriak (web-orriak, sare sozialak, egunkari digitalak, eta abar) erabiltzeari zer nolako trataera eman behar zaion jaso beharko litzateke.

- Aurkeztutako ordainagiriek garbi jaso behar dute gastua zein datatan eta zein kontzepteurrekin egin den. Zerbitzua emateko edo materialak hornitzeko data bestelakoa bada, fakturan data hori adierazi behar da.
- EH Bilduk, SMR-ek eta VOXek hornitzaleei gogorarazi behar die hauteskunde-gastuengatik 10.000 eurotik gora fakturatu badute, araudiak ezarritako epean HKEEri jakinarazteko betebeharra dutela.
- SMRk administratziale nagusiaren izendapena egiaztatzen duen dokumentazioa eman behar zigu, hauteskundeetako banku-kontua administratzialea izendattu ostean ireki dela egiaztatzeko.





## V. GEHIENEKO DIRULAGUNTZA, DIRULAGUNTZA-GASTUEN ETA - AURRERAKINEN MUGA

### V.1 HAUTESKUNDEEN EMAITZAK ETA GEHIENEKO DIRULAGUNTZA

Lurralde Historiko bakotzeko Hauteskunde Batzordeek hautetsiak izendatzeko egindako akten arabera, EAEHBk baitetsitakoa, formazio bakotzari dagozkion dirulaguntza publikoak zehazteko zenbagarri diren boto eta jarlekuen kopurua honako hau da:

HAUTAGAITZA	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		EAE	
	Botoak	Jarlekuak	Botoak	Jarlekuak	Botoak	Jarlekuak	Botoak	Jarlekuak
EAJ-PNV.....	41.111	7	223.118	11	108.227	9	372.456	27
EH Bildu.....	44.815	8	161.486	8	137.308	11	343.609	27
PSE-EE (PSOE) .....	24.911	4	79.575	4	46.266	4	150.752	12
PP.....	24.429	4	51.644	2	22.071	1	98.144	7
VOX.....	5.656	1	10.822	-	5.218	-	21.696	1
SMR.....	5.630	1	19.155	-	10.617	-	35.402	1
Gainerako hautagaitzak ..	5.834	-	19.666	-	11.515	-	37.015	-
GUZTIRA	152.386	25	565.466	25	341.222	25	1.059.074	75

Hautesle-errolda, hautetsiak izendatzeko aipatutako akten arabera, honako hau izan da:

LURRALDE HISTORIKOA	ERROLDA GUZTIRA
ARABA .....	261.623
BIZKAIA.....	945.878
GIPUZKOA.....	587.712
GUZTIRA	1.795.213

#### Hautesleei zuzenean eta pertsonalki bidaltzeagatiko dirulaguntza

Alderdi politikoek dirulaguntza jasoko dute hautesleei propaganda, gutun-azal eta esku-paper edo hauteskunde-publizitateko bestelako zeinahi elementu zuzenean eta pertsonalki igortzeak eragindako hauteskunde-gastuengatik (posta bidezko bidalketa). Dirulaguntza hautesle bakotzeko 0,28 eurorena izango da dena delako hautagaitzak jarleku eskuratu duen barruti bakotzean, betiere jarduera egiaz gauzatu dela eta ezarritako gastu muga gorde dela justifikatzen bada.

Honi dagokionez, EAEHBk 1998ko irailaren 11n egindako bileran adierazi zuen hautesletzat hartuko dela hauteskunde-propagandaren igorpena egin zaion oro.

Hona hemen hautagaitza bakotzak gutxienez jarleku bat eskuratu duen barrutietan egindako bidalketa zuzenen kopurua eta ezargarria zaien gehiengo dirulaguntza:





Herri Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

HAUTESLEEI ZUZENEAN ETA PERTSONALKI BIDALTZEAGATIKO DIRULAGUNTZA			Euroak	
ALDERDI POLITIKOA	BIDALKETA DIRUZ LAGUNG.	GEHIENEKO DIRULAG.	GASTU JUSTIFIKATUAK	BIDALKETA BAK. DIRULAG.
EAJ-PNV .....	1.664.099	465.947,72	459.635,19	459.635,19
EH Bildu.....	1.664.075	465.941,00	528.054,92	465.941,00
PSE-EE (PSOE) .....	1.660.406	464.913,68	456.532,38	456.532,38
PP.....	1.664.102	465.948,56	205.886,76 (*)	205.886,76
VOX.....	1.664.102	465.948,56	194.333,39	194.333,39
SMR .....	1.111.632	311.256,96	111.098,24	111.098,24

(\*) 5.515,78 euro barne daude maileguko interesen parte proporcionala dela eta.

Diruz lagungarri diren bidalketa modura barne hartu dira alderdi politikoek egiaz justifikatu dituzten haien, EAEHBaren 1998ko irailaren 11ko interpretazioaren arabera.

### Hauteskunde gastuengatiko dirulaguntza

Hauteskunde-propaganda bidaltzeagatiko dirulaguntzaz gain, gainerako gastuak ere eskuratutako boto eta ordezkarri kopuruaren arabera lagunduko dira diruz, ELHLaren 151. artikuluari jarraikiz. Era horretan, ELHLaren xedapen gehigarri laugarrenaren arabera, 151. artikuluuan aurreikusitako kopuruak Ogasun eta Ekonomia Sailburuaren 2024ko martxoaren 4ko Agindu bidez gaurkotzen dira:

- Hogeita hamabi mila seiehun eta bost euro eta hogeita bederatzi zentimo (32.605,29), Eusko Legebiltzarrean eskuratutako jarleku bakoitzeko.
- Hautagaitza bakoitzak eskuratutako boto bakoitzagatik euro bat eta bederatzi zentimo (1,09 euro), betiere gutxienez kideetako batek dagokion hauteskunde-barrutian jarlekua eskuratu badu.
- Berrogeita hamalau mila hirurehun eta berrogeita bi euro eta hamalau zentimo (54.342,14) hauteskunde-barruti bakoitzeko, hauteskunde-barrutian gutxienez jarleku bat eskuratzen dutenei.

Horren arabera, alderdi politiko bakoitzak honako dirulaguntza hauek jasotzeko eskubidea du:

HAUTESKUNDE GASTUENGATIKO GEHIENEKO DIRULAGUNTZA			Euroak	
ALDERDI POLITIKOA	JARLEKUAK	BOTOAK	BARRUTIA	GUZTIRA
EAJ-PNV.....	880.342,83	405.977,04	163.026,42	1.449.346,29
EH Bildu.....	880.342,83	374.533,81	163.026,42	1.417.903,06
PSE-EE (PSOE) .....	391.263,48	164.319,68	163.026,42	718.609,58
PP.....	228.237,03	106.976,96	163.026,42	498.240,41
VOX .....	32.605,29	6.165,04	54.342,14	93.112,47
SMR .....	32.605,29	6.136,70	54.342,14	93.084,13
GUZTIRA	2.445.396,75	1.064.109,23	760.789,96	4.270.295,94





#### HAUTESKUNDE GASTUENGATIKO DIRULAGUNTZA

ALDERDI POLITIKOA	HAUTESKUNDE GASTU DIRUZ LAGUNG.	BIDALKETA ZUZEN ETA PERTS. DIRULAG.	GAINERAKO HAUTESK. GASTUAK	Euroak GAINERAKO DIRULAG. APLIKAGARRIA
EAJ-PNV .....	2.029.515,91	459.635,19	1.569.880,72	1.449.346,29
EH Bildu.....	1.528.017,14	465.941,00	1.062.076,14	1.062.076,14
PSE-EE (PSOE) .....	1.596.466,67	456.532,38	1.139.934,29	718.609,58
PP.....	1.000.126,22	205.886,76	794.239,46	498.240,41
VOX.....	410.279,73	194.333,39	215.946,34	93.112,47
SMR.....	330.925,55	111.098,24	219.827,31	93.084,13

Diruz lagungarri diren gastuen guztizkotik bidalketa zuzen eta pertsonalagatik jada diruz lagundutako gastuak murriztuko dira. Eta emaitza dira diruz lagungarri diren gainerako gastuak, zeina aurreko “HAUTESKUNDE-GASTUETARAKO GEHIENEKO DIRULAGUNTZA” taulan zehaztutako jasotzeko kopuru gehienekoarekin alderatzen baita, eta kopuruuetan txikien den hora laguntzen da diruz.

#### V.2 GASTUEN GEHIENEKO MUGA

Hautagaitza EAEn diren hauteskunde barrutietatik bakar batean aurkeztu duten alderdi politikoentzako barrutien araberako hauteskunde gastuek ezingo dituzte ondoko taulan zehaztutako kopuruak gainditu:

	Euroak
ARABA.....	416.007,82
BIZKAIA .....	831.522,32
GIPUZKOA .....	614.887,32

Jarlekuren bat eskuratu duten alderdi guztiak Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hauteskunde-barrutietan aurkeztu dira eta honenbestez, hauteskunde gastuen muga, bidalketa zuzen eta pertsonalagatiko diruz lagundutako gastuak murriztu ondoren 1.862.417,46 euroena izango da.

ALDERDI POLITIKOA	GASTUEN MUGA GUZTIRA	HAUT.GASTUA GUZTIRA	Euroak	
			/DEFIZITA	SOBERAK.
EAJ-PNV.....	1.862.417,46	1.569.880,72	(292.536,74)	
EH Bildu.....	1.862.417,46	1.062.076,14	(800.341,32)	
PSE-EE (PSOE) .....	1.862.417,46	1.139.934,29	(722.483,17)	
PP.....	1.862.417,46	794.238,86	(1.068.178,60)	
VOX.....	1.862.417,46	215.946,34	(1.646.471,12)	
SMR.....	1.862.417,46	219.827,31	(1.642.590,15)	

Alderdi politikoetatik batek ere ez du muga hori gainditu.





Gainera, ELHLaren 75. eta 81. artikuluek publizitate gastuetarako mugak ezartzen dituzte baimendutako merkataritza eremuetan eta prentsan eta irratian. Bi-biek ere, aurrez adierazitako kopuruaren gainean % 20ko muga ezartzen dute.

Hona hemen alderdi politiko bakoitzak gastu-kontzeptu horietan egindako gastuak, eta aplikatzekoak zaizkien mugak:

ALDERDI POLITIKOA	KANPOKO PUBLIZIT.MUGA	KANP. PUBLIZ HAUT.GASTUA GUZT.	SOBERAK. /DEFIZITA	Euroak		
				PRENT. ETA IRRAT. MUGA	PRENT. ETA IRRAT. HAUT.GASTUA GUZT.	SOBERAK. /DEFIZITA
EAJ-PNV.....	372.483,49	298.857,54	(73.625,95)	372.483,49	336.169,67	(36.313,82)
EH Bildu.....	372.483,49	100.909,75	(271.573,74)	372.483,49	109.046,87	(263.436,62)
PSE-EE (PSOE) .....	372.483,49	360.035,03	(12.448,46)	372.483,49	172.725,08	(199.758,41)
PP.....	372.483,49	106.355,32	(266.128,17)	372.483,49	122.737,84	(249.745,65)
VOX.....	372.483,49	43.374,10	(329.109,39)	372.483,49	34.571,90	(337.911,59)
SMR.....	372.483,49	-	(372.483,49)	372.483,49	61.681,02	(310.802,47)

### V.3 DIRULAGUNTZEN AURRERAKINAK

ELHLaren 144 artikuluaren 2. atalak agintzen du “Eusko Jaurlaritzak hauteskundeetako dirulaguntzen aurrerakinak emango dizkiela Eusko Legebiltzarrerako azken hauteskundeetan ordezkarriak eskuratu dituzten alderdi politiko, federazio, koalizio edo hauteskunde-taldee. Aurreratutako diru kopuruak ezin gaindituko du alderdi, federazio, koalizio edo hautesle-talde berak Eusko Legebiltzarrerako azken hauteskundeetan jasotako dirulaguntzaren % 30.

Aipatutako artikuluaren 7. atalak agintzen du behin hauteskundeak egin eta EAEHBaren aurrean hauteskunde-kontabilitatea aurkezteko epea amaitu ondorengo 15 egunetan, Ogasuneko Sail arduradunak administratzaile orokorreai eta bigarren aurrerakin kontzeptuan, hautagaitzek eskuratutako hauteskunde-emaitzen arabera dagozkien dirulaguntzen zenbatekoaren % 90i dagokion kopurua ordainduko diela, kasua balitz, aurreko atalean aipatutako aurrerakina murriztuta. Aurrerakin hori jasotzeko alderdi politikoek jasotako aurrerakin guztien % 10 egiten duen banku abala aurkeztu behar dute.





Herri Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Hauteskunde-kontuak aurkeztu diren datan Eusko Jaurlaritzak lehenengo aurrerakina soiliak eman du. Hona hemen alderdi politiko bakoitzak jasotako aurrerakina:

DIRULAGUNTZAREN AURRERAKINA	Euroak
HAUTAGAITZA	ZENBATEKOA
EAJ-PNV.....	435.879,63
EH Bildu.....	309.802,76
PSE-EE (PSOE).....	277.410,06
PP .....	208.757,23
VOX .....	40.899,91
SMR.....	46.483,26
Elkarrekin Podemos-Alianza Verde .....	27.892,75
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.347.125,60</b>

Elkarrekin Podemos-Alianza Verdek hauteskunde aurretik 27.892,75 euroko dirulaguntza jaso du. Ordea, 2024ko apirilaren 21ean egindako Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan ordezkaririk lortu ez duenez, ez dagokio dirulaguntza eskuratzea. Txosten hau idatzi dugunean, itzultzeko dauka jasotako aurrerakina.





## VI. HAUTESKUNDEETAKO KONTUAK

Hona hemen Epaitegi honek berrikusitako alderdi politikoen hauteskundeetako kontuak.

Txosten honetako tauletan baliabide modura barne hartu dira alderdi politikoetatik jasotako ekarpenak, APEKParen arabera hartzekodunetan erregistratu behar direnak, eta dirulaguntzek eragindako sarrerak, zeinak APEKParen arabera emaitzen kontuan kontabilizatu behar baitira. HKEEk ez ditu birsailkatu edo doitu alderdi politikoek aurkeztutako kontuak. Esan behar da EAJ-PNVk, PSE-EEk (PSOE), PPk eta SMRk jasotzea espero duten dirulaguntzaren arabera kontabilizatu dutela diru-sarrera, EH Bilduk jasotako aurrerakina baino ez du kontabilizatu, eta VOXek erregistratutako gastuen zenbateko bera erregistratu du sarrera gisa.

Diruz lagungarri ez diren gastuak aparteko kontzeptuan jaso dira eta dagozkion hauteskunde-kontuen ondotik zerrendatu.

HKEEk birsailkatu egin ditu mugak dituzten kontu-sailetakoak diren gastuak.

Administratzairek kontabilitate xehakatua eta dokumentatua aurkeztu beharko dute bozketa ondoko hirurogei egunetan (ELHLaren 149.1 artikulua); epea 2020ko irailaren 10ean amaitu da. Epaitegi honetan kontuak aurkezteko datak eta honenbestez, alderdi politiko bakoitzaren kontabilitatean barne hartutako eragiketei dagozkienak, honako hauek dira:

ALDERDI POLITIKOA	DATA
EAJ-PNV .....	2024/06/18
EH Bildu .....	2024/05/15
PSE-EE (PSOE).....	2024/06/13
PP .....	2024/06/07
VOX .....	2024/06/19
SMR .....	2024/06/21

SMR alderdi politikoak egun bateko atzerapenez aurkeztu du kontabilitatea.





## VI.1 EUZKO ALDERDI JELTZALEA

		Euroak	
GASTUAK	BALIABIDEAK		
Errentamenduak .....	32.083,75	Dirulaguntzaren aurrerakina .....	435.879,63
Profesional independenteen zerbitzuak .....	20.349,39	Alderdi politikoaren ekarpene .....	1.595.000,00
Prentsako eta irratiko publizitatea .....	336.169,67	Sarrera finantzarioak.....	6,55
Kanpoko publizitatea .....	298.857,54		
Bestelako propaganda eta publizitatea .....	850.680,41		
Beste zerbitzu batzuk.....	31.739,96		
Hauteskunde-bidalketengatikoa gastuak.....	459.635,19		
<b>DIRUZ LAGUND.HAUTESK. GASTUAK GUZT.</b>	<b>2.027.533,93</b>	<b>BALIABIDEAK GUZTIRA</b>	<b>2.030.886,18</b>
Diruzaintza.....	1.370,27		
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.030.886,18</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>2.030.886,18</b>

"Beste zerbitzu batzuk" atalean birsailkatu dira 18.295,20 "kanpoko publizitatea" kontuan erregistraturiko 18.295,20 euro.





## IV.2 EUSKAL HERRIA BILDU

		Euroak	
GASTUAK		BALIABIDEAK	
Langileria ez iraunkorren gastuak .....	14.060,38	Dirulaguntzaren aurrerakina .....	309.802,76
Errentamenduak .....	53.013,55	Alderdi politikoaren ekarprena .....	1.221.554,98
Profesional independenteen zerbitzuak .....	63.552,22		
Banku zerbitzuak eta antzekoak .....	355,44		
Prentsako eta irratiko publizitatea .....	109.046,87		
Kanpoko publizitatea .....	100.909,75		
Bestelako propaganda eta publizitatea .....	120.118,21		
Beste zerbitzu batzuk.....	538.905,80		
Hauteskunde-bidalketengatiko gastuak.....	528.054,92		
<b>DIRUZ LAGUND.HAUTESK. GASTUAK GUZT.</b>	<b>1.528.017,14</b>	<b>BALIABIDEAK GUZTIRA</b>	<b>1.531.357,74</b>
Hauteskundekoak ez diren gastuak .....	3.340,60		
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>1.531.357,74</b>	<b>BALIABIDEAK GUZTIRA</b>	<b>1.531.357,74</b>

3.340,60 euro murriztu dira “Zerbitzu profesional independenteak” kontutik, ez direlako Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetako hauteskunde-prozesuari dagozkion gastuak.

Hainbat gastu birsailkatu dira: “bestelako propaganda eta publizitatea” kontuko 54.003,51 euro “hauteskunde-bidalketagatiko gastuak” kontura; eta “beste zerbitzu batzuk” kontuko 3.340,60 euro “kanpoko publizitatea” kontura.





Herri Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

### VI.3 EUSKADIKO ALDERDI SOZIALISTA-EUSKADIKO EZKERRA (PSOE)

		Euroak
<b>GASTUAK</b>		<b>BALIABIDEAK</b>
Errentamendua.....	2.583,96	Dirulaguntzaren aurrerakina..... 277.410,06
Aseguru primak .....	2.032,18	Alderdi politikoaren ekarpene ..... 1.320.647,61
Prentsako eta irratiko publizitatea .....	172.725,08	
Kanpoko publizitatea .....	360.035,03	
Bestelako propaganda eta publizitatea .....	255.098,97	
Beste zerbitzu batzuk.....	347.459,07	
Hauteskunde-bidalketengatiko gastuak.....	456.532,38	
<b>DIRUZ LAGUND.HAUTESK. GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>1.596.466,67</b>	<b>BALIABIDEAK GUZTIRA</b>
Hauteskundekoak ez diren gastuak .....	1.591,00	
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>1.598.057,67</b>	<b>BALIABIDEAK GUZTIRA</b>
		<b>1.598.057,67</b>

1.291 euro murriztu dira hauteskunde-gauean aretoak edo espazioak alokatzeagatik, eta 300 euro musika-ekitaldi bakoitzeko, biak "beste zerbitzu batzuk" kontuan erregistratuta.





## VI.4 ALDERDI POPULARRA

		Euroak
<b>GASTUAK</b>		<b>BALIABIDEAK</b>
Langileria ez iraunkorren gastuak .....	11.650,89	Dirulaguntzaren aurrerakina..... 208.757,23
Errentamendua.....	11.297,30	Alderdi politikoaren ekarpene..... 398.000,00
Profesional independenteen zerbitzuak .....	250.931,23	Kreditu erakundeekiko zorrak..... 396.866,93
Aseguru primak .....	4.799,99	
Banku zerbitzuak eta antzekoak .....	1.884,80	
Prentsako eta irratiko publizitatea .....	122.737,84	
Kanpoko publizitatea .....	106.355,32	
Bestelako propaganda eta publizitatea .....	81.838,38	
Beste zerbitzu batzuk.....	181.392,56	
Hauteskunde-bidalketengatiko gastuak.....	200.370,98	
Gastu finantzarioak.....	26.866,93	
<b>DIRUZ LAGUND.HAUTESK. GASTUAK GUZT.</b>	<b>1.000.126,22</b>	<b>BALIABIDEAK GUZTIRA</b> 1.003.624,16
Hauteskundekoak ez diren gastuak .....	2.625,70	
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>1.002.751,92</b>	<b>BALIABIDEAK GUZTIRA</b> 1.003.624,16
Diruzaintza.....	672,65	Hartzekodunak..... (199,59)
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.003.424,57</b>	<b>GUZTIRA</b> 1.003.424,57

2.625,70 euro murriztu dira “Beste zerbitzu batzuk” kontuan erregistratutako hauteskunde-gauean aretoen edo espazioen alokairu gastuagatik.

“Prentsako eta irratiko publizitatea” kontuan erregistratutako 2.557,94 euro birsailkatu egin dira “profesional independenteen zerbitzuak” kontura.





## VI.5 VOX

		Euroak	
<b>GASTUAK</b>		<b>BALIABIDEAK</b>	
Langileria ez iraunkorren gastuak .....	2.186,23	Dirulaguntzaren aurrerakina .....	40.899,91
Errentamenduak .....	3.165,27	Alderdi politikoaren ekarpene .....	374.064,86
Garraioa .....	164,56	Ekarpenak pribatuak .....	7.812,00
Aseguru primak .....	5.300,00		
Banku zerbitzuak .....	190,61		
Prentsako eta irratiko publizitatea .....	34.571,90		
Kanpoko publizitatea .....	43.374,10		
Bestelako propaganda eta publizitatea .....	114.313,50		
Beste zerbitzu batzuk.....	12.680,17		
Hauteskunde-bidalketengatiko gastuak.....	194.333,39		
<b>DIRUZ LAGUND.HAUTESK. GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>410.279,73</b>	<b>BALIABIDEAK GUZTIRA</b>	<b>422.776,77</b>
Hauteskundekoak ez diren gastuak .....	1.000,00		
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>411.279,73</b>	<b>BALIABIDEAK GUZTIRA</b>	<b>422.776,77</b>
Diruzaintza.....	11.497,04		
<b>GUZTIRA</b>	<b>422.776,77</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>422.776,77</b>

1.000 euro deskontatu dira "prentsako eta irratiko publizitatea" kontuko telebista pribatu batean publizitatea emateagatik.

18.779,29 euro birsailkatu dira "bestelako zerbitzuak" kontutik "kanpoko publizitatea" kontura eta 6.282,00 euro "prentsako eta irratiko publizitatea" kontutik "beste propaganda eta publizitatea" kontura.





## VI.6 SUMAR

		Euroak	
GASTUAK		BALIABIDEAK	
Errentamenduaik .....	12.872,46	Dirulaguntzaren aurrerakina .....	46.483,26
Profesional independenteen zerbitzuak .....	95.937,23	Alderdi politikoaren ekarprena .....	146.752,25
Garraioa .....	150,44		
Aseguru primak .....	929,77		
Banku zerbitzuak eta antzekoak .....	522,96		
Prentsako eta irratiko publizitatea .....	61.681,02		
Kanpoko publizitatea .....	-		
Bestelako propaganda eta publizitatea .....	21.145,63		
Beste zerbitzu batzuk.....	26.587,80		
Hauteskunde-bidalketengatiko gastuak.....	111.098,24		
<b>DIRUZ LAGUND.HAUTESK. GASTUAK GUZT.</b>	<b>330.925,55</b>	<b>BALIABIDEAK GUZTIRA</b>	<b>193.235,51</b>
Hauteskundekoak ez diren gastuak .....	7.009,36		
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>337.934,91</b>	<b>BALIABIDEAK GUZTIRA</b>	<b>193.235,51</b>
Diruzaintza.....	9.442,32	Hartzekodunak.....	154.141,72
<b>GUZTIRA</b>	<b>347.377,23</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>347.377,23</b>

Hauteskunde-gauean aretoak edo espazioak alokatzeari dagozkion 3.514,72 euro murriztu dira "errentamenduaik" kontutik, eta 3.494,64 euro "beste zerbitzu batzuk" kontutik, garraio-gastuengatik.

Aurkeztutako kontabilitatea itxi ondoren, 2024ko maiatzaren 30ean, alderdi politikoaren ekarpenak erregistratu ziren banku-kontuan, guztira 145.700 eurorenak, hornitzaireei epe barruan ordaindu ahal izateko.





Herri Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## ABREVIATURAS

- CAE Comunidad Autónoma de Euskadi.
- JECA Junta Electoral de la Comunidad Autónoma del País Vasco.
- LEPV Ley 5/1990, de 15 de junio, de Elecciones al Parlamento Vasco.
- PCAFP Plan de Contabilidad Adaptado a las Formaciones Políticas y a la Ley Orgánica 3/2015, de 30 de marzo, aprobado por el pleno del Tribunal de Cuentas el 20 de diciembre de 2018.
- TVCP Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.







## I. INTRODUCCIÓN

De acuerdo con el artículo 149.3 de la Ley 5/1990, de 15 de junio, de Elecciones al Parlamento Vasco, el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas debe emitir un dictamen motivado, sobre las contabilidades electorales y sobre la justificación de los ingresos y gastos incluidos en las contabilidades correspondientes a las elecciones al Parlamento Vasco celebradas el 21 de abril de 2024.

El TVCP, conforme a la normativa vigente, ha examinado la documentación presentada por las formaciones políticas que han obtenido escaño o que solicitaron adelanto de la subvención electoral.

Los aspectos a analizar en las formaciones políticas que han obtenido algún escaño son los siguientes:

1. El cumplimiento de las condiciones sobre la forma de presentación de la contabilidad de ingresos y gastos electorales (artículo 140 de la LEPV).
2. La comprobación de que las cuentas bancarias abiertas o habilitadas, comunicadas a la JECA, han sido las utilizadas por las candidaturas para la recaudación de fondos y el pago de gastos electorales, con las especificaciones que se establecen (artículos 141 y 142.1 y 2 de la LEPV).
3. La disposición de los saldos de las cuentas bancarias abiertas o habilitadas para pagar gastos electorales previamente contraídos se ha realizado dentro del plazo de 90 días siguientes al de la votación (artículo 142.3 de la LEPV).
